



FA/OF	189	2019
-------	-----	------

Foru diputatuak ondorengo agindua eman du gaur:

La diputada foral, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente orden foral:

"Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 aldirako Kudeaketa Plan Estrategikoak bere helburuen artean jasotzen du Gipuzkoaren gizarte baliabideen sare publikoaren eskaintza egokitzea gizarte beharren bilakaera kontuan hartuz eta horrek lurraldean oreka izatea lortzea.

"El Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa recoge entre sus objetivos el adecuar la oferta de la red pública de recursos sociales de Gipuzkoa, dada la evolución de las necesidades sociales y lograr su equilibrio territorial.

2017ko utarrilean, Txara II egoitza kudeatzen duen Biharko enpresak txosten bat bidali zion Gizarte Politikako Departamentuari, lan arriskuen prebentzioko alorreko Premank enpresak idatzitakoa, hain zuzen. Txosten horretan jakinarazten denez, sotoan sute bat izanez gero (garaje gunea), une horretan sukaldean, aldageletan, garbitegian edo guneko beste gela batzuetan dauden langileak isolatuta geldituko dira eraikinaren barruan, galdara gelako irteera bakarrik erabili ahal izango delako, eta irteera hori ez da segurua ez onargarria ere ebakuazioko bide gisa erabiltzeko, galdara gunea arrisku gunea baita.

En enero de 2017 la empresa Biharko, gestora de la residencia Txara II, envió un informe al Departamento de Políticas Sociales un informe redactado por Premank, empresa de prevención de riesgos laborales informando que en el caso de producirse un incendio en la planta sótano (zona del garaje), el personal que se encontrase en ese momento en la cocina, vestuarios, lavandería o estancias de la zona, se quedaría aislado dentro del edificio, dado que sólo quedaría utilizable la salida que recorre la sala de calderas, y la misma no es segura y aceptable como recorrido de evacuación, siendo como es la zona de calderas zona de riesgo.

Gaia aztertu ondoren, Ikuskapeneko, Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Zerbitzuak eskailera berria jartzeko beharra ikusi zuen, sotoa eta behe solairua lotuko zituen, garajetik edo galdara gelatik igaro gabe.

Tras analizar el tema, el Servicio de Inspección, Inversiones e Iniciativa Social vio la necesidad de construir unas escaleras nuevas que comunicasen la planta sótano con la planta baja sin pasar por el garaje ni la sala de calderas.

Horregatik, behar horri erantzuna emateko, 2017ko azaroan egikaritze proiektua idazteko agindua eman zitzaion Enrique Antero eta Fernando Fernández arkitektoei; proiektu hori 2018ko martxoan entregatu zen.

Por ello, y para atender tal necesidad, en noviembre de 2017 se encargó la redacción del proyecto de ejecución a los arquitectos Enrique Antero y Fernando Fernández, que fue entregado en marzo de 2018

Egikaritze proiektuak Inbertsioetako eta Gizarte Ekimeneko Ataleko arkitekto teknikoaren aldeko txostena du.

El proyecto de ejecución, cuenta con el informe favorable del arquitecto técnico de la Sección de Inversiones e Iniciativa Social.

Horregatik, orain bidezko da Txara II-n aipatu obrak egitea.

Por ello, en la actualidad resulta necesario acometer las obras citadas en Txara II.

Proiektuak sei hilabeteko exekuzio epea du, eta 74.077,31 euroko aurrekontua, gehi % 21eko BEZari dagozkion 15.556,24 euro; guztira aurrekontua 89.633,55 euro da eta Diputatuen Kontseiluak onartu behar du.

Dicho proyecto cuenta con un plazo de ejecución de seis meses y un presupuesto de 74.077,31 €, más 15.556,24 euros en concepto de 21% IVA; en total, 89.633,55 €, correspondiendo su aprobación al Consejo de Gobierno Foral.

Ondorioz, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak, 159-1a artikuluan dioenari

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 159-1a) de la Ley 9/2017 de 8 de



jarraikiz, eta kontratuaren zenbatekoa ikusirik, prozedura ireki efrastuaren bidez esleitu da.

noviembre, de Contratos del Sector Público y a la vista de la cuantía del contrato, éste se adjudicará por procedimiento abierto simplificado.

Horregatik guztiagatik, foru diputatu honek

En virtud de lo anterior, esta Diputada Foral

XEDATZEN DU

DISPONE

Lehenengo.- Onestea Donostiako Baratzategi 9. zenbakian dagoen Txara II egoitzako behe solairuan eskailera berria jartzeko obren egikaritze proiektuaren kontratazio espedientea, eta baita ere administrazio klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoaren agiria. Lan horien gehieneko aurrekontua 74.077,31 euro da, gehi % 21eko BEZari dagozkion 15.556,24 euro, guztira, LAUROGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (89.633,55 €), eta proiektua egikaritzeko epea SEI HILABETEKOA (6).

Primero.- Aprobar el expediente de contratación de las obras de ejecución definidas en el Proyecto de ejecución de la nueva escalera en planta baja del centro residencial Txara II ubicado en Baratzategi 9 Donostia, así como los pliegos de cláusulas administrativas particulares y los pliegos de prescripciones técnicas con un presupuesto total máximo de 74.077,31 €, más 15.556,24 euros en concepto de 21% IVA; en total, OCHENTA Y NUEVE MIL SEISCIENTOS TREINTA Y TRES EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CÉNTIMOS (89.633,55 €) y un plazo de ejecución de SEIS MESES (6).

Bigarren.- Baimena ematea LAUROGEITA BEDERATZI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (89.633,55 €) gastua egiteko, 2019ko 1.0820.210.610.03.01 aurrekontu partidaren kargura; kontratua egikaritzeko epea SEI HILABETE da (6).

Segundo.- Autorizar un gasto de OCHENTA Y NUEVE MIL SEISCIENTOS TREINTA Y TRES EUROS CON CINCUENTA Y CINCO CÉNTIMOS (89.633,55 €) con cargo a la partida presupuestaria 1.0820.210.610.03.01 de 2019 para la ejecución del contrato en un plazo de SEIS MESES (6).

Hirugarren.- Hasiara ematea adjudikazio prozedurari, zeina abian jarriko den Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean argitaratuko den iragarkiaren bitartez.

Tercero.- Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación abierto mediante el preceptivo anuncio que se publicará en el perfil del contratante de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Hortaz, foru agindu honen aurka **ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA** aurkeztu ahal izango dute interesatuek, Donostian dauden administrazioarekiko auzietako epaitegietan, erabaki hau argitaratu eta biharamunetik BI HILABETEKO EPEAN. Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertze hautazko errekurtsua aurkezteko honako Foru Diputatuari, jakinarazpenaren biharamunetik hasita hilabeteko epean.

La presente orden foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra la misma **RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO** ante los juzgados de lo contencioso-administrativo de San Sebastián, en el plazo de DOS MESES a partir del día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía los particulares podrán interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN** ante esta diputada foral en el plazo de UN MES desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

Ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzearen ebazpena eman edo ustezko ezespina gertatu arte. Dena dela, egoki irizitako beste edozein errekurtsu aurkez daiteke."

No se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente."



Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egiten dut Y para que conste, extendo la presente certificación

2019 MAR: 15

Donostia,
Departamentuko Idazkari Teknikoak/ La Secretaria Técnica del Departamento.

Izptua./ Fdo.: M^a Socorro Equiza Equiza

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. KONTUHARTZAIETZA ETA AUDITORETZA ZERBITZUA

